

1963'go Uztailaren 19'an, eguerdiko amabietan, Euskaltzaindiko bilkura egin da Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian.

Etorri diran euskaltzaiñak, auek izan dira: Lojendio, Lekuona (Manuel), Lafitte, Mitxelena, Dassance, Irigarai, Iratzeder, Satrustegi, Irigoien, Haritschelar, Arrue ta Villasante. Erkiaga Jaunak, ezin etorria adierazi du.

Urgazleetatik berriz: Loidi, Valverde, Zugasti, Berriotxo, Lekuona (Juan Mari), Bordari ta Aita Zabala.

Oi dan otoitzarekin asi da batzarra.

Belloc'en Maiatzaren 18'an egindako batzarraren agiria irakurri da ta onartua izan da.

Euskaltzainburu Jaunak, Belloc'eko batzarra ondoren izandako gertaeraren berri ematen du. Egun artako erabakiak zirala ta, eztabaidak sortu izan. Euskaltzainburu Jauna Bilbora jaun zan, ango euskaltzain eta Euskaltzaindiaren alde lan egin nai duten euskaltzaleekin itz egiteko. Ikusi zituen guztiak oso ondo artu zuten eta beren laguntza eskeñi zioten. Erkiaga ta Arruza Jaunak lagunduta, Gernikara juan zan eta Altube Jaunari ikustaldi bat egin zion, berarekin oso jardun atsegiña izanaz. Etzan izan ale ere, urrango egunetan, Euskaltzaidiko goraberak bear bezala erabakitzeko biderik eta Gernikako batzarrean atzeratu egin zan, Euskaltzaindiak erabaki arte. Bildutako guztiak ontzat artu zituzten Euskaltzainburu Jaunaren lanak. Beren iritziz, Gernikara baño len, barrutiko gorabera guztiak zuzendu bear dira, bertan laguntasun onean alkarrekin biltzeko.

Euskaltzainburu Jaunak dio, Araudia berritu bear dala, euskera garbian xeetasunak, zeaztasun geiagorekin jarriaz. Danok batera datoz onetan ere.

Batzar deiak iragartzen duan bezela, Zadorlari, Diruzaiñ, Gutunzaiñ eta barrutiko batzorde buruak izendatu bear dira. Baña Bilboko euskaltzain geienak ez dira etorri ta urrango batzarrerako uztea dira izendapen oiek. Euskaltzainburu jaunaren iritziz; izendapen oiek bear bearrezkoak dira; Iker-sail eta Jagon-saillak osatzeko. Euskaltzaindikoak ez diranak ere sartu ditezke, lagunkide bezela saill oietan. Eginkizun asko dago, ta euskerazale guztien laguntza bear da.

Uztailaren 28'an ospatuko da Baigorri Haritschelar Jaunaren sarrera. Meza nagusia amarretan izango da, Eppherre Jaun Kalonjeak predikua egiñik. Amaika t'erdietan, "Bil-etxea" deritzaion zineman, egingo da Euskaltzaindiaren batzarra. Batzar au agirikoa bakarrik izango da. Haritschelar Jaunaren itzaldiari, René Lafon Jaunak erantzungo dio. Ordu batean izango da bazkaria, ta arratsaldeko bostetan pelota-partidua.

Satrustegi Jaunaren sarrera berriz, Agorraren 15an ospatuko da Luzaiden.

Urriko asieran, Arantzazun, Euskaltzaleen Batzar bat egingo da, Euskaltzaindiak eratu. Batzar au, guztiz zabala izango da ta Euskaltzainburu Jaunak dionez, onura aundikoa izan diteke, bai idazleen batasunerako, bai eskola irakaskuntzarako ta bai euskeraren gañerako zabalkunderako ere. Jardunen gaia: "Euskalitzegia ta gaur eguneko bearrak". Zenbat eta euskaltzale geiago bildu, obe, batez ere, al izan ezker; maixuak eta maistrak, Eskola bai da euskeraren eutsigarri indarrenetako bat eta eskal eskola ta ikastolaen alde lan egiteko gertatu bear du lenbailen Euskaltzaindiak.

Mitxelena Jaunak —Irigarai Jaunari erantzunaz— jakin arazten du nola dijoan bere iztegi lana. Bere ustez, Naparroan batez ere, itz asko dago, iñoiz iztegieta jaso gabeak.

Aita Zubiaga Pasionistak irabazi du "Agora" ren eleberri saria. Epaimaiekoak Euskaltzaindikoak izan dira.

Aita Villasantek dio; aspaldio *Jakin* aldizkaria ezta irtetzen eta ia Euskaltzaindiak zerbait egin lezaken baimen ori lortzeko. Baiet erabaki da.

Irigoien Jaunak dio, urtero bezela, Garagarrillaren 27'an Bizkaiko neska mutilen azterketak egin dirala Bilboko Indautxuko Jesuiten Ikastetxean.

"Caja de Ahorros Municipal de Bilbao" k amar milla pezeta eman dizkio Euskaltzaindiari. "Caja de Ahorros Vizcaina" k berriz, amairu milla pezeta eman dizkio, bertsolari saritan banatzeko. San Antonio egunean saio bat egin zan Urkiolan. Beste saioak, Markiña, Mungia, Igorre Gernika ta Bilbon egitekoak dira.

"Toribio Alzaga" teatro sarirako, bost lan aurkeztu dira. Epaia Urriko 31 baño len eman bear da; saria egun ortan ematen baita. Epailariak izango dira: Arrue (buru); Erkiaga, San Martin eta Loidi Jaunak.

Tolosako "Oargi" koak, Orixe zanari eratu nai dioten gorazarreaz itz egiten da. Labaien jauna izendatzen da Euskaltzaindiaren Ordezkar bezala, "Oargi" koekin itz egiteko ta jai-orren xeetasunak antolatzen.

Igaz, "Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa" ren laguntzaz, "Lizardi Olerki saria" ta "Bertsolari saria" ospatu ziran. Aurten sari oien oñarriak iragarri baño len, Aurrezki Kutxako Zuzendari Jaunarekin itz egitea erabakitzen da.

Eta beste gabe, oi dan oitizarekin bukatu da batzarra.

Aita Luis Villasante